



Agur Begoña arraindegia

Abenduaren 24an itxi zuen Andoaingo Ondarreta kaleko negozioa. Bezeroek bazkaria antolatu dute, urteotako zerbitzua eskertzeko / 6-7

San Sebastian eguna

Donostiako jaiaren oihartzuna Urnietaraino eta Andoaineraino iristen da / 2-3

**Euskaldunaren
mendeurrena hizpide
nagusi izan zen
Basteroko
Bertso-derbian** / 8-9

**Ansa txapela janzteko
hautagaietako bat da
abiatzear den
Kutxabank Masters
txapelketan** / 11

Elkarrekin teilatuak
energia bilakatzen

Zalantzarik baduzu, deituiguzu edo
bidali mezu elektronikoko bat



www.tekumietas.eu/ou

info@tekumietas.eu

Tel: 946 856 312

Urnietako Tokiko Energia Komunitatearen aurkezpena



01/25



18:00



LEKAI
KULTUR ETXEA





Izaskun Bilbao, Irati de Torres eta Pablo de Torres. AIURRI



Urnietarrik ere izaten da Donostian. AIURRI

Negu beteko ospakizuna, aurtengoa

Gogotsu daude donostiarrak, eta inguruko herrietako San Sebastian zaleak. Eguraldiari begira ibili beharko dute, giro petrala iragarri baitute.

"Betidanik bizi izan dugu danborrada"

PABLO DE TORRES, IZASKUN BILBAO ETA IRATI DE TORRES URNIETARRAK

San Sebastian Eguna ospatzen da urtarilaren 20an. Horrela, hainbat urnietarrek ere parte hartuko dute hitzordu berezian

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Inoiz baino zuri-urdinago hasi ohi du urtea Donostiak. Izan ere, oso ezaguna da Gipuzkoako hiriburuan ospatzen den San Sebastian Eguna, baita bezpera ere. Bada, bertan parte hartzen dute Pablo de Torresek, Izaskun Bilbao eta beren alaba Irati de Torresek. Eskarmentu handia dute hirurek danbor hotsen artean. Aurtan, ez dute hutsik egin.

Zerk lotzen zaituzte danborrada-rrarekin?

Pablo de Torres: Donostikoak gara Izaskun eta biok. Eta, betidanik, asko bizi izan dugu gure hiriarren egunik garrantzitsuenak, festarik handiena.

Irati de Torres: Ahizpa eta biok kasualitatez gara urnietarrak! Gurasoek transmititu digute egun horren ilusio handia. Betidanik bizi izan dugu.

Izaskun Bilbao: Urtero ipintzen dugu bandera zuri-urdina gure balkoitik eskegita!

Zein elkarterekin atera ohi zarete?

P.T.: Club Deportivo Esperanza-rekin atera ohi naiz. 120 kidek osatzen dugu taldea; upela jotzen

"GURASOEK TRANSMITITU DIGUTE EGUN HORREN ILUSIO HANDIA"

IRATI DE TORRES

dut nik, eta danborren bikoitza gara.

I.B.: Talde berarekin aterako naiz neu ere, urtekari moduan.

I.T.: Ni ere Parte Zaharretik, Euskal Bilerarekin. Geu ere antzeko kopurutan ibiltzen gara, eta urtekari naiz ni. Upelak sukaldariz janzten dira, eta, gu baserritarrez.

I.B.: Parte Zaharrean, zenbait tokitan, emakumeek oraindik

"URTERO IPINTZEN DUGU BANDERA ZURI-URDINA GURE BALKOITIK ESKEGITA"

IZASKUN BILBAO

ezin dute danborra jotzen atera. Baina aldatzen ari da pixkanaka; badugu bidea oraindik egiteko.

P.T.: Zenbait dokumentuk diote 1929an emakumeak, jada, bazirela danborradan jotzen.

Egun oso batez egoten dira danbor soinuak hara eta hona. Noiz hasi zineten entseguekin?

I.B.: Haurrek denbora tarte luzeagoa ematen dute entseguekin; azaroan, abendu partean ekiten diote. Aldiz, helduok eguna baino astebete lehenago elkartzen gara.

Aurtan, zein ordutan aterako zarete kalera?

I.T.: Goizeko 03:00tan abiatzen naiz ni Parte Zaharretik. Bitartean... parranda egin beharko! Hiru orduz egongo gara auzoko kaleak zeharkatzen.

I.B.: Hurrengo egunean, urtarilaren 20an, arratsaldeko 18:00tan aterako gara Pablo eta biok.

Oso berezia zaizue eguna...

I.B.: Bezperan, amonaren etxean afaldu ohi dugu, Parte Zaharrean bizi delako. Gainera, balkoiak Konstituzio plazara ematen du, beraz, izugarria!

P.T.: Ia-ia, hogeita hamasei orduz egoten gara jarraian, danbor hotsen artean.

"SAN SEBASTIANEKO DANBORRADA DONOSTIARRREN EGUNA DA"

PABLO DE TORRES

Nola amaitzen du buruak horrelako saio baten ondoren?

I.B.: Egun horrekin, nahikoa daukagu, datorren urtera bitartean (barrez)!

I.T.: Pena ere ematen digu, aje emozionala sentitzen dugu.

P.T.: Oso zaila da kanpoko jendeari azaltzea zer den egun horretan sortzen dena. Barrutik bizi beharra dago.

I.T.: Gure familian, oso hitzordu inportantea da, eta, jada, gurean ez daudenekin gogoratzeko modu polita.

P.T.: Urnietarekin alderatu beharko bagenu, Sanmielelako ostegunarekin (niretzat, egun handienarekin) konparatuko nuke: tortilla-lehiaketan, urnietar guztiak biltzen garelako, etxeok.

Donostian ere gauza bera gertatzen da: Aste Nagusia kanpoko begira dago; aldiz, San Sebastianeko donostiarron eguna da danborrada.

Zer nahiago izaten duzue, urtarilaren 19ko gaua edota 20koa?

I.T.: 19 gaua, hasten den unea delako.

I.B.: Halere, 20ko danborrada folklorikoagoa da.

P.T.: Raimundo Sarriegirenak izan behar dute pieza guztiek. Hori bai, urtarilaren 20an, gaurdiaren ondoren, ezin dira konpositore horren pieza gehiago jo. Horrez gain, badira toki inportanteak. Bereziagoa bihurtzen dute momentua, esate baterako, Konstituzio plazak edota Santa Mariak.



Berrondo eta Oiartzabal. Maiz batu dituzte indarrak, abesti berriak konposatzen AIURRI

Bi kantu berriren estreinaldia, aurtengoan

Joxe Ramon Berrondok idatzi eta Joxe Mari Oiartzabalek konposatutako bi kanta Altza auzoan, Gure elkarteak eta Altza ikastetxe publikoak, estreinatuko dituzte lehen aldiz, aurtengo San Sebastian egunean

Xabier Lasa ANDOAIN

Joxe Mari Oiartzabal eta Joxe Ramon Berrondo musikariek Altzako auzotarrentzat bi abesti konposatu dituzte, aurtengo danborradan lehenbiziko aldiz jo dituzten. “Zapi-urdira Altza Ikastola” du izenburu batek, eta SJC Altza Eskola Publikoarentzat sortu dute. Bigarren abestia, “Gurea Elkarte” da, izen bereko auzoko elkarteari eskainia.

Ostegunean, gauerdian, Gurea elkarteak bere ereserkia estreina-

natuko du. Biharamunean arratsaldeko 16:30ean, berriz, Altza ikastetxeko haurrek gauza berbera egingo dute beren doinu berriarekin; gora Kaletxiki txar-rangaren laguntzarekin auzoko kaleetan barrena ibiliko dira danborra jotzen.

“Biribilketa baten erritmoa hartzen duen doinua osatu nahi izan dut Altzako haurrek gogoz eta alaitasunez jo dezaten” aitortu du Oiartzabalek, “Zapi-urdira Ikastola” abestia nola osatu duen azaltzen hasita.

Erantsi duenez, “danborren eta kupelen arteko elkarrizketa gisa antolatuta dago abestia, eta bere azken zatian, danborjole guztiek kantari amaitzeko pentsatua dago”.

Gurea elkartearen ereserkia-ri dagokionez, zera adierazi du Oiartzabalek: “Melodia itsas-korreko doinu indartsu eta bizia sortzea izan da nire asmoa hasieratik. Ea kupel eta danborjoleek gogoko duten kalera irten eta danborra jotzen dutenean!”.

Berrondok, bere aldetik, hitz-sortzaile gisako eginbeharrak ez daukala misterio handirik aitortu du. “Ezeren gainetik, ereserkia norentzat den ondo jakin behar da lehenbizi. Elkar-te edo ikastetxe horren historian eta gizarte-eginkizunean murgildu, zortzi-hamar hitz gako hautatu, eta horiek testu koherente batean batzea da kontua”.

Donostiako hainbat elkarteekin doinu jartzaile

Oiartzabalek eta Berrondok bikote bikaina sortu dute, lehenak danborrez jotzeko doinu dantzagarri eta alaiak sortuz, eta bigarrenak, elkarte bakoitzaren izen eta izanera lotzen diren hitzak josita. Era horretan, Donostiako musika ondareak eta bertako hainbat elkarte danborjolek badute Oiartzabal eta Berrondorekin esker oneko agertzeko arrazoirik. Izan ere, azken urtetan hainbat elkarerentzat aritu baitira ereserkiak sortzen. Santiagomendi, El Sauce, Urto-ki eta Club Ciclista Donostiarra elkarteentzat iraganean, eta Altzako Altza Ikastetxe Publikoa eta Gurea elkartearentzat aurtun.

Bestalde, ezin ahaztu Joxe Mari Oiartzabalek Donostia hiriarri eta bere musikagintzari azken hamarkadetan eskaini dien ekarpena. Bere eskuetatik igaro izan dira Donostiako jai nagusietan kalea girotzen dituzten doinu tradizionalen moldaketa gehienak, Sarriegik eta beste zenbait konposatzaileek sortutakoak. San Sebastian Eguneako ez ezik, baita Kaldereroetako zein Inauterietako ospakizunetako makina bat abesti moldatu izan ditu, instrumentu ezberdinekin jo ahal izateko. Doinu horiek guztiak bost diskotan bilduta daude aspalditxotik.

Donostiako Udalak, 2020an, aintzat hartu zuen Oiartzabalek egindako lan guztia, aitortza publikoa jaso zuen, San Sebastian egunean. Ohorezko batuta eman zioten, eta bere ekarpena balioan jarri nahi izan zuten: “Urte asko baitaramatza Donostiaren aldeko lan isil, dotore eta doakoa egiten”.

**ALTZA ESKOLA
PUBLIKOARI ETA
GUREA ELKARTEARI
ERESERKI BANA
IDATZI DIETE**



Oiartzabal, 2020an. OIARTZABAL

2020ko protagonista nagusia

Konstituzio enparantzatik ikurriña jaso zuen Oiartzabalek, 2020ko urtarrilean.

Era horretan, Urtarrilaren 19tik 20rako gauean, Konstituzio plazako Udal liburutegiko balkoitik egin ohi den ekitaldi jendetsuan, Eneko Goia alkateak eta Joxe Mari Oiartzabalek banderak igotzeko ardurak hartu zituzten; Goiak Donostiako bandera igo zuen, eta Oiartzabalek ikurriña.

Ikastetxeen doinuen sortzaile

Altza auzoko ikastetxe publikoa hizpide hartuta, gogoratzeko ere bada ez dela lehen aldia Oiartzabalek eta Berrondok ikastetxe batentzat ereserkia sortzen dutenik, gero danborradan jotzeko moduan gainera. 2019ko apirilean, Ondarreta ikastetxe publikoarentzat egindakoa eman zuen jakitera, bat eginez bere sorreraren 50. urteurrenarekin. Eta urte bereko maiatzean, bikoteak La Salle-Berrozpe ikastetxearen mesedetan jarri zuen bere sormen-iturria; handik gutxira, Kaletxikiko jaietan, Gora Kaletxiki bandak interpretatu egin zuen abestia.

**ALTZAN BERTAN
EGINGO DITUZTE BI
DOINUEN
ESTREINALDIAK,
OSTIRAL HONETAN**

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

GKS, GAZTE KOORDINADORA SOZIALISTA BETERRI-BURUNTZA

Enpresari eta agintarien erasoaldien aurrean, gazte langileok borrokara!

Kapitalismoaren krisi sakona bizitzen ari gara, baina guztiok ez ditugu modu berean sufritzen krisi horren ondorioak. Are gehiago, bankari eta enpresari handiak negozioa egiten ari dira testuinguru honetan. Izan ere, zuzenean eta zeharka langileon soldatak erasotzen ari dira; horregatik, gure soldatek gero eta balio gutxiago daukate, eta langile askoren ezintasuna eta larritasuna handitzen ari dira. Eta hau ez da gertakari neutral bat, hau enpresari handien eta agintarien erasoaldia da: banku zentralena, nazioarteko diru funtsena, energia konpainia handiena, armagintzako enpresena, putre funtsena, elikagaien korporazio erraldoiena, plataforma eta industria digitalena eta bestelako enpresari handi askorena. Horien diru goseak langileriaren miseria dakar.

Azken urteotako esperientziak argi utzi digu egoera hau ez dela aldatuko hilabeteek aurrera egin ahala; ez, errealitate prekario hau geratzeko etorri da. Izan ere, kapitalismoaren ziklo ekonomiko berri batean sartu gara, paradigma kapitalista berri batean, eta paradigma berri horretan langileon pobrezia eta eskubideen ezabapena ez dira



Sentsibilizazio kanpaina abiatu zuten, Gabonetan. GKS

salbuespenak, normaltasun berria baizik. Politikari profesionalak ere langileon aurkako erasoaldi honen parte dira. Ez soilik politika parlamentarioa oligarkiaren interesen menpekoa delako, Europar Batasuneko herrialdeetan gertatzen den bezala, adibidez. Europar Batasunaren mandatuei lotuta egoteaz gain, erasoaldi honen onuradunetako bat dira politikari profesionalak; izan ere, hilerro-hilerro milaka liberatuen soldatak betetzen dizkiete; beraien alderdien egoitzak eta gastuak ordaintzen dizkiete; administrazio edota enpresetan karguak zein kudeaketa konpetentziak eskuratzen dituzte eta bestelako pribilegio asko dituzte. Akaso norbaitek uste du bankarien eta enpresari

handien erasoalditik elikatzen diren politikari profesionalak gure bizitzak hobetuko dituztela? Ez gaituzte engainatuko: salbuespen politika ilegalak aplikatzen, kode penalak gogortzen, aurrekontu militarra igotzen, poliziaren baliabideak handitzen... ikusi ditugu politikari horiek azken urte hauetan.

Beraien patrikak goraino betetzen dituzten bitartean, gazte belaunaldion bizi baldintzak okertzen ari dira. Gizarte mailan, proletarizazio prozesu orokorra dago martxan eta horren ondorioak nabarmenak dira gazte esparruan ere. Lan baldintza prekarioak, bizi ereduaren okertzea eta autoritarismoaren gorakada nagusitzen dira gazte langileon bizitzetan. Gainera, agintariekin beraien burua

zuritzeko erabiltzen gaituzte: gazteok omen gara etorkizuna eta horrekin konprometituta daudela esaten digute, gure hitza entzun nahi dutela, pentsamendu kritikoa sustatu nahi dutela gazteengan, belaunaldi oparoa garela eta abar. Beraiek hori esaten duten bitartean, gazte langileok errealitatearekin aurrez aurre egiten dugu topo: etorkizun duin baterako baldintzarik gabe gaude, miseriazko soldata baten truke egiten dugu lan, laneko nagusiaren abusuak jasan behar ditugu, kriminalizatu egiten gaituzte, eskubide politikoak ezabatzen dizkigute...

Egoera honen aurrean, gazte langileon arteko batasun politikoa sustatzearekin batera, beharrezkoa ikusten dugu enpresari handien eta agintarien erasoaldiari aurre egitea. Horregatik, horren guztiaren aurka mobilizatzeko hautua egiten dugu, gazteon artean borrokarako borondatea hedatzeko helburuarekin. Hori horrela, urtarrilaren 28an

**GKS MUGIMENDUAK
DEITU DUEN
MANIFESTAZIOA
URTARRILAREN 28AN
IZANGO DA, BILBON**

manifestazioak egingo ditugu Bilbon eta Iruñean, "enpresari eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara!" lelopean.

Mobilizazio batek ez du enpresariaren erasoaldia geldituko, baina gazteon arteko antolakuntza eta borrokarako grina hedatzeko erabili behar dugu. Izan ere, gero eta jende gehiago eta lurralde gehiagotan mobilizatzeko testuingurua sortu behar dugu, baita enpresari eta politikari profesionalen eraginetik kanpo antolatzen jarraitzeko bitartekoak hedatu ere. Urtarrilaren 28an egingo ditugun manifestazioak norabide horretan kokatzen ditugu. GKS, gazte langileontzako erreminta bat garen heinean, helburu horiekin konprometituta gaude eta gazte langileok antolatzen eta mobilizatzen jarraitzeko proposamenak garatzen jarraituko dugu.

Enpresari eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara!

**ANDOAINDIK
AUTOBUSA
ARRATSALDEKO
15:50TAN ABIATUKO
DA, MAKALDEGITIK**

PROTAGONISTA

"Sinadura-bilketa jarriko dugu martxan, larunbatean"

AITOR AIZPURUA CII PROIEKTUAK KALTETUTAKOEN PLATAFORMAKO KIDEA
Larunbat honetan, eguerdiko 12:00tan hasita, Andoaingo plataformak bilera batera deitu ditu herritarrak. Dekalogoak aurkeztu eta sinadura kanpainari ekingo diote

Erredakzioa ANDOAIN

Jendaurreko ekitaldi berria deitu duzue. Aurreraterik ba al duzue nondik norako ekitaldia izango den?

Gure plataformaren sorreraren helburu nagusia N-1 eta A-15 errepideak ingurumenarekiko jasangarri izateko proiektu bat definitzea eta bultzatzea izan da, pertsonen interesak errespetatuko dituen eta indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasotako helburuak bideragarri egingo dituen. Proiektu berri horren oinarriak ezarri nahi ditugu larunbateko ekitaldian, eta xede horrekin, Basteroko ekitaldian, proiektuak bete beharko lituzkeen hamar helburuko dekalogoak aurkeztuko dugu. Helburu horiek denak, indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorretik ateratakoak dira, eta beraz, Andoaingo Udalak defendatu beharrekoak lirateke.



Aizpurua erdian ageri da. Harekin batera Etxarte eta Perez de Eulate. AIURRI

Dekalogo horren aurkezpena eta gero, herritarren atxekimendua lortu nahiko duzue. Kalez kale ibiliko zarete ala telematikoki egingo da sinadura bilketa hori?

Bai, horrela da. Dekalogoak ahalik eta indar handiena izan dezan sinadura-bilketa bat jarriko dugu abian. Dekalogoak etxe guztietako postontzietan banatuko da herritar orok sinatu ahal dezan, eta behin sinaturik herriko hainbat puntutan jaso ahal izango dira, hala nola, Coviran Karrikan, Ernaitza liburudendan, Gorostidi burdindegian, Stop liburudendan eta Telletxea janaridendan. Larunbateko ekitaldian, nola ez, izango da dekalogoak sinatzeko aukera. Bestalde, "Change.org" webgunearen bidez ere bat egiteko aukera izango da, eta datozen asteetan kalean ere zenbait sinadura bilketa ekintza egingo dira.

Espainiako Diputatuen Kongresuak 476.000 euroko aurrekontu-partida onartu zuela gogorarazi duzue. Zertan dago partida hori?

Bai, berri pozgarria izan zen benetan 476.000 euroko partida onartu izana, CIIa geldiaraziko bada, alternatiba hoberik badela frogatu behar baita, eta aurrekontu partida honek proiektu sendo bat eraikitzeak aukera ematen du. Tamalez, Andoaingo Udalak 2023ko udal aurrekontuetan 476.000 euro horiek ez sartzea erabaki du, nahiz eta

aurretik jakin partida Estatuko Boletin Ofizialean argitaratuko zela eta beraz, ziurra zela diru hori jasoko zuela. 476.000 euroko aurrekontu partida 2023ko Udala aurrekontuetan sartzea Udalaren betebeharra da, eta hori exigituz udalean mozio bat aurkezteko asmoa dugu.

Lau hilabete igaro dira C2ak kaltetutakoek plataforma aurkeztu zenetik. Zein da egiten duzuen bariantzea?

Azken lau hilabeteak oso biziak izan dira. Plataforma eratu, kaltetuak elkartu, alegazioak bideratu, CIIaren berri herriari emateko hainbat eta hainbat ekintza, irailak 12ko udal mozioa, Batzar Orokorretan agerraldia, proiektu berri bat eraiki ahal dadin bitartekoak lortzea, adibidez, 476.000 euroko aurrekontu partida Estatuko aurrekontu orokorretatik eratortzea.

Lan gogorra burutu da denon partetik. Jendearengan sortu da ilusioa, gu ordezkatzeko gaituzten erakundeek inposatu nahi diguten proiektuari alternatibarik egon daitekeela ikustarazteak merezi izan du eta mereziko du.

"DEKALOGOA ETXE GUZTETAKO POSTONTZIETAN BANATUKO DA"

AITOR AIZPURUA

KOMUNITATEA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA ANDOAIN

Zain dugu Agate deuna!

Azken bi urteetan ezin izan du Larramendi Bazkunak Santa Ageda bezperako erronda kalez kale antolatu ohi zuen bezala, Covid 19aren izurritea zela-eta. Iaz, dena den, kalera atera ahal izan genuen eta, neurri jakin batzuk hartuz, urteroko ohiturarekin bete.

Aurten, ordea, urteroko usadioari helduko diogu eta berriro Andoaingo kale eta plazetan barrena ibiliko gara otsailaren 4an, larunbatearekin, arratsaldeko

seietatik aurrera, Kaletxikin azkeneko kantak urratuz amaitzeko.

Ahotsak prestatzeko helburuarekin eta kanta berriren bat ere ikasi behar baita, urtarrilaren 30ean, astelehenarekin, eta

OTSAILAREN 4AN ANDOAINGO KALE ETA PLAZETAN BARRENA IBILIKO GARA, 18:00ETATIK AURRERA

otsailaren 1ean, asteazkenarekin, entseguak egingo ditugu Anbrosia Olabide egoitzako sarrera nagusian, ohi dugun bezala, iluntzeko 20:00etan hasita.

Ateri egon edo kazkabarra egin Agate deunaren erronda kalean izango da berriro aurten, hutsik egin gabe. Errondaren ibilbidea ohikoa izango den arren, aurrerago horri buruzko xehetasunak emango ditu Manuel Larramendi Kultur Bazkunak.



2020ko edizioako argazkia. AIURRI



Begoñak abenduaren 24an ireki zuen arraindegia azkeneko aldiz. AIURRI

"Saltoki handiak txikia irenstera eta herri-bizitza hiltzera datoz"

BEGOÑA GORROTXATEGI ANDOAINGO ONDARRETA KALEKO ARRAIN-SALTZAILEA
Ateak itxita dauzka jada, 35 urteren ostean. Joan den urteko azaroan, 65 urte bete zituen, eta abenduaren 24an egin zuen bere azken lan-eguna Begoñak arrandegian

Xabier Lasa ANDOAIN

Jubilazio hitza bozkarioarekin lotzen bada ere, ez dirudi hala denik Gorrotxategiren kasuan. Akabo eguneko lan-ardurak eta

akabo bezeroekin goizeroko tertuliak! Iraganera begira jarrita, pena puntu batekin topatu dugu geroztik, eta berak azaldu dizkigu arrazoiak.

Ez omen zaude oso pozik, erretiroa hartuz geroztik.

Egoera berrira egokitu ezinik nabil, egia esanda. Zoriontsua izan naiz beti arrain-saltzaile

gisa! Zer esango dizut, aukeran, nahiago ogibide horrek ematen zizkidan zereginak eta bezeroekin tratua, bilobak eskolara eramanez eta ekartzen ibiltzea baino.

Kontua da etxean pittin bat behartu egin nautela erretiroa hartzerako, "kotizatu duzu nahikoa, eta eskertuko dizu osasunak, ama!", esanez. Ondo pentsatuta, ez zaie arrazoirik falta: adinean aurrera, handitu egiten dira edozein istripu txiki edukitzeko aukerak. Eta, bestalde, negua iritsi orduko, beti gaixotu izan naiz, arrandegiko baldintzak ez baitira egokienak gorputza tenple onean edukitzeko: arraindegiko atea beti zabalik, hozkailuganbera eta mostradoreko izotzak inguruan... Senarrak ere ondo eskertuko du nire erretiroa, kaxa pisutsuekin zama-lanak egin zitzen eskatzen bainion tarteka.

Jakina da nire osasun fisikoa-
ren mesederako izango dela erretiroa. Baina osasun mentala. Hori beste kontua da, eta niri dagokit orain kudeatzea.

Bezeroekin aparteko tratua izan duzula diozu.

Bai, berezi-berezia. Bezero fide-lak eduki baititut beti, zoragarrak! Urtetan eta urtetan. Askorekin, jada, atetik sartu orduko, banekien zer eskatzera zetozkidan. Batzuei telefonoz ere hots egiten nien halako generoa neukala ohartaraziz; bestalde, bi-hiru astetan baten bat ez bazen agertzen, agudo hasten nintzairen galdezka beste bezeroei ea zeozer bazekiten. Arrandegian beti egon da esertzeko aulkia, eta bezero asko presarik gabekoak izan ditut, itxaron behar denean ere hizketan hasteko pronto egon direnak, eta neu ere ez naiz isilik egotekoa. Horrekin dena esana dago.

Eskertua egongo zara bezeroekin, beraz.

Bai, jakina, biziki eskertua! Azken lan-egunean, abenduaren 24an, opariekin (eskumuturreko-pitxiekin, bonboiekin, polboroi-kaxekin, orkidea-sortarekin...) aurkeztu zitzaizkidan arraindegian batzuk. Nola ez emozionatu halako bezeroekin!

Eurekin eduki dudana arreta abegikorreratik eskerrak ematera gerturatu zaizkit asko, eta erantzun diet neu nagoela zorretan eurekin, arrandegian jarri duten konfiantzagarritik, eta haiei esker nik bizimodua atera ahal izanagatik.

Egia esan, mezu ugari jaso ditut egunotan; batetik, zorionak emanez, erretiroa merezita daukala esanez, baina, bestetik, pena sentitzen dutela aitortuz.

Lehengoan, batzuek otsailaren 10a libratzeko eskatu zidaten, agurreko bazkari edo afari bat antolatzen ari omen direla-eta.

Pena, zergatik?

Lotsa ematen omen die egoera berriak, aurrerantzean beste arraindegietara joan beharko dutelako. Nik erantzuten diet herriko beste arrandegiak desiratzeko daudela bezero berriak edukitzeko, eta tratua bikaina jasoko dutela. Azken batean, merkatariei bezeroek ematen die bizia.

Gero eta arrain gutxiago jaten omen da

Ez nuke jakingo ziurtatzen baiez-tapen hori. Baina egia da badi-tuela arrazoi batzuk atzera egin dezaketinak, prezioari eta erosotasunari garrantzi itzela ematen zaion gizarte honetan: garestia da, orohar; ez da oso erraza sukaldetan prestatzeko; arantzak dauzka; umeei gozagarriagoak egiten zaizkie oilaskoa, pizza edo hanburgesa, eta, hartara, gurasoentzat ere di-da bateko lana...

Erosketa-ohiturak ere aldatzen ari dira belaunaldi berrien artean. Nabarmentzen saltoki handien, elikagai izoztuen, aurrez prestatutakoen elikagaien aldeko joera.

Eskaintza zabala daukazu saltoki handietan, denetariko erosketak karro bakarrean pilatzeko aukera ematen dizute, eta erraz jartzen dizute erosotasunaren eta azkartasunaren ikuspegitik. Nolanahi ere, ez joan leku horietara denda txikien gertutasunaren eta arretaren bila!

Bestalde, aurreiritziek eta ez-jakintasunek gehiegi funtzionatzen dute, kalitatea eta kantitatea neurtzen hasita. Urrutira gabe, aitortuko dizut alaba eta biok nola joan ginen Usurbilgo saltoki handi batera lehengoan, eta nahi gabe ere, nola hasi nintzen alderatzen hango arrandegiko oilarra eta nik saldu izan dudana, eta zinez, esango dizut dezentez merkeagoa saldu izan dudala nik.

**"ZORIONTSU ARITU
NAIZ ARRAIN-
SALTZAILE OGIBIDEAN,
URTE HAUETAN
GUZTIETAN"**

Eta elikagaien kalitateaz, zer esan? Detaile txikiek ere gauza handiak adierazi ditzakete, eta bat kontatuko dizut: haurra eduki berri duten gazte franko hurreratu izan da nire arraindegira, arraina erostera. Berdin zaie eurek beste edozein tokietako arraina jatea, baina kontuz! Haurrarentzat, genero onekoa ziurtatu nahi izaten dute.

Denda salgai edo alokairuan jartzeko asmorik ez?

Ekonomikoki ez daukat haindanoko premiarik, eta oraingoz bere horretan utziko dut, loka-la itxita. Gainera, harrokeriarik gabe, baina aitortu behar dut kalitatezko generoarekin lan egiten saiatu izan naizela beti, eta horrez gain, ahalik eta harrerarik gozoena egiten bezeroari. Bi faktore horiek bereziki zaindu izan ditut 35 urtetan, eta etorkizunean besteren batek arrandegia irekiko balu, jendeak alderaketak egiteko joera edukiko luke; sufritu egingo nuke. Ez dut egoera hori bizi nahi, bakean egon nahi dut.

Arrandegiak urritzen ari dira.

Andoainen, oker ez banago, bost bat dauzkagu (Saldias, Bitoria, Maria Mar, BM, Eroski) erosi liteke, eta aparte, beste bi saltoki handitan. Ematen du herriko arrandegiek, gainerako denda txikien antzera, etorkizun iluna daukatela.

Gazteek apenas erakusten dute arrain saltzaile izateko gogo, are gutxiago ikusita herriko merkataritzaren panorama. Egia esatera, bere alde onak eta txarrak ditu ofizioak. Ez da batere lanbide zaila; ez dizkizu ingeniartzako ikasketak eskatzen, nahikoa arrainari ezkatatzen ikastea, goizean-goiz jaiki eta genero ona erostea, negozioa txukun eramaten jakitea, bezeroarekin esku ona edukitzea... Ziurtatzen dizu bizimodua! Baina bestalde, ederki lotzen zaitu zeurea bada negozioa, eta bere ordutegiak ere atzera egiten die askori, goizean-goiz jaiki behar horrek batik-bat!

Konparazio batera, badakit Astigarragan gertatu dena oraindik orain, herri-kaskoan dagoen

arrandegi bakarrarekin: berta-ko arrain saltzaileak erretiroa hartu zuenean, zeharo harrituta sumatu nuen, inork ez ziolako lekukoa hartu nahi! Non, eta gaztez hornitzen ari den herri batean!

Nola ikusten duzu herriko komertzioen etorkizuna?

Iluna! Dendak ixten ari dira etengabe, eta egoera iraultzeko espektatibarik ez da ikusten geroan. Bizpahiru denda geratuko dira zabalik azkenean, lau bezero ero edo kapritxosoentzat. Ireki berri dituzten bi saltoki handiek errematatzen ari dira direla esango nuke. Nonahi ari dira irekitzen saltoki handi horiek, merkataritza txikia irentera eta herrietako bizitzak hiltzera datozenak, eta nik ez dakit zeri begira dabilzan instituzioak, irekitzeko lizentziak barra-barra banatuz. Ulergaitza da Udalaren jarrera; 50 euroko kontsumo-bonuekin egoera etsigarria estali dezaketela uste dute, edo hori sinestarazi nahi digute. Hori ez da irtenbidea, hori arpegi garbitze hutsa da.

Noiz eta zergatik ireki zenuen arraindegia?

Aita hil zenean, ikasketak utzi eta SAPA lantegian hasi nintzen, nahiko gazte nituen orduan, 16 bat urte. 30 bat urte bete nitue- nean, arrandegia jartzea bururatu zitzaidan. Garbi neukan autonomia, nire buruaren jabe izan nahi nuela, inoren agindutara ez egoteko. Etxean jota nengoela esan zidaten, soldata finkoa baineukan lantegian, eta etorkizuna ziurtatuta! Baina egoskor jarri nintzen, eta aurre- ra egin nuen! Ez naiz batere damutzen orduan hartu nuen erabakiagatik. Kontrara, zorion- tasuna eskaini dit lanbide honek. **Baina ez zinen hutsetik hasiko arrainaren sektorean...**

Ez, jakina. Gure amak (Begoña Iraola) Urnietan arraindegia eduki zuen urtetan, eta hura itxi eta gero, Andoainen, osaba- ren arrandegian laguntzaile gisa segitu zuen. Nik nirea ireki nuenean, ama ondoan eduki nuen lehenbiziko urtetan; ofi- zioan ondo erakutsi zidan.

**"SAPA UTZI ETA
ARRANDEGIA IREKI
NUEN. GARBI NUEN
NIRE BURUAREN JABE
IZAN NAHI NUELA"**

**"ARRANDEGIEK,
GAINERAKO DENDA
TXIKIEN ANTZERA,
ETORKIZUN ILUNA
DUTE"**



Arraindegian, bezeroekin lanean, zoriontsu izan dela aitortzen du Begoña Gorrotxategik. AIURRI

BASERRITAR JANTZIAK:

ZER ETA NOLA JANTZI?

Ane Albisuren
hitzaldi-tailerra



URTARRILAK 25
18:30
OLAGAINEN



URKI DANTZA TALDEA

Izen-ematea eta informazio gehiago:
urkidantza@gmail.com edo 627 441 603



Mendiluze, Egaña, Martin, Colina, Arzallus. Uria eta Etxeberriazarraga bertso-saioaren amaieran. AIURRI

Mendeurrenako ekitaldia, bertso-artean

Bertsoderbian ez ziren Realak edo Athletic garaile izan, mendeurrena ospatzen hasi den Euskalduna baizik. Egaña gai-jartzaileak partida Etxeberrietan kokatu zuen, Euskaldunaren sorrerako futbol zelaian. Gainera, Aitor Mendiluze izendatu zuten MVP

Erredakzioa ANDOAIN

Mendeurrena ospatzen ari den Euskalduna taldeak Realak eta Athletic bezainbeste protagonismo hartu zuen, Bastero Kulturgunean. Andoni Egaña gai-jartzaileak zeresana izan zuen horretan, Andoaingo futbol taldeari keinu bat baino gehiago egin ziolako. Klubaz gain, ekitaldiak bigarren protagonista

nagusia izan zuen: Aitor Mendiluze. Herriak eskertza adierazteko aukera baliatu zuen, baita klubak berak ere. Eta bertso finalean bota zuen agurreko bertso gogoangarria borobiltzeko, Mendiluzek berak amari lore-sorta eman zion. Ikusleen artean zegoen eta hunkigarria izan zen. Egañak azaldu zuen Mendiluzek aurreko egunetan aitortu ziona;

ez zuela gehiegi pertsonalizatu nahi keinu hori eginez, izan ere, "Andoainen jende asko dago gure amaren antzerako, nahiz erdalduna izan, nahi izan duena bere seme-alabak euskaraz hazi eta hezitzea. Beraz, keinua denentzat izan dadila".

Laster, saioaren hainbat pasarte ETB1eko "Hitzetik hortzera"n ikusi ahal izango dira.

Jendetza elkartu zen Basteron



Asun Gonzalez ama, Aitor Mendiluze semearekin. AIURRI

Lore-sorta Euskalduna taldeak keinu bat izan zuen Mendiluzeren ama Asun Gonzalezekin. Taula-gainera lore-sorta bat hurbildu zioten Aitorri, eta honek amari eman zion. Unerik hunkigarriena izan zen, aurretik, finalean amari eskainitako agurra entzun baitzen.



Tente maskotak parte hartze handia izan zuen. AIURRI

"Tente" maskota Bertso-saioari hasiera eman aurretik, Tente maskota taula gainera igo zen giroa berotzera eta bertsolariak banan-bana agurtzera. Euskaldunako elastikoa hartu eta jendaurrean erakutsi zuen Andoni Egaña bertso-jartzaileak.



Noa Prado eta Aritz Eskudero Punttuta bertso eskolako kideak. AIURRI

Punttuka Saioaren amaiera aldera, Punttuka bertso eskolako Noa Prado eta Aritz Eskudero oholtzara igo, eta bi bertso eskaini zizkieten Aitor Mendiluzeri. Ondoren, oroigarria eman zioten. Sorterrian biziki estimatzen dute sorabillatarra.



Aiurriko harpidedunen artean zozketa egin eta gero, bertsoderbirako sarrera bikoitzaren irabazlea Agurtzane Urtasun izan zen. Zorionak!

#1923EUSKALDUNA2023

ESKERRIK ASKO,
EUSKALDUNA!



andoaINDARRA
euskaraz

Bertso jokaldi bikainak Euskaldunaren historiaren joku-zelaian

**Aitor Mendiluze
eta Sustrai Colina**

Gaia: “1923an gaude, Euskalduna futbol taldea sortu zen egunean. Zuek, Andoaingo bi baserritar zarete eta lehenengo aldiz, maiatzeko arratsalde batean, baratzean lanean ari zaretela, han ikusi dituzue, urrutira, 22 tipo praka-motxetan eta baloi baten atzetik zalapartaka. Berriketan hasi zarete”

Aitor Mendiluze:

Prakak izter erdian
atorra urdina,
hoien korri beharra
eta hoién grina.

Zelai batean ari
direla jakina.

Dena arrastaka
ta zuloa eqina.

Gure baratza ez da oso desberdina (bis).

Sustrai Colina:

Hara ta hona dabiltz
euren baldarrean,
zelai bat bilatu nahiz
piko malkarrean.
Ni begira naukate
ienio txarrean.

Aitor, ez ote daude
halabeharrean?

Txori-malo gehiegi
baratz bakarrean (bis).

Aitor Mendiluze:

Hogeitabi elkartu
elkarren ondora,
esan liteke ari
direla gustora.

Bola bat darabilte
behera eta gora.
Ostikoz jotzen dute



Martin eta Uria, Bastero Kulturquean. AIURRI

jakin gabe nora.
Bola horren jabea
pozik egongo da (bis).

Sustrai Colina:
Hemen gertatu dena
da enez behin behinekoa,
ezin liteke izan
gure heinekoa.
Dena da gorpuzteko
zein mingainekoa.
Bola bat darabilte
bola oinekoa,
ez erabiltzarren
lepo gainekoa (bis).

Aitor Mendiluze:
Noizbait erabiltzea
berez ez da txarra.
Baina hauek oinetan
daukate indarra.
Bat bada beltzekoa,
da tente xamarra.
Bati keinua eta
besteai oharra.
Hoitabi txorimalo
ta bele bakarra (bis).

Sustrai Colina:
Ta berak markatzen du
besteen nibela,
elitzake egongo
erdian bestela.
Ni harritu egin naiz
begira gaudela,
nahiz zuk aurkezten duzun
bele bat bezala,
ni sinistuta nengon
polizia zela (bis).

Aitor Mendiluze:
 Uste hortan begira
 aritu natzaio.
 Izan ziteken, baina
 ez izanda nahio.
 Bitartean bestea
 pelotak arraiio!
 Besteen sarean sartzen
 horrenbeste saio.
 Joko klase hau nori
 gustatuko zaio? (bis).

Sustrai Colina:
Baloia astintzeko
ze borondateak.

bainan neurtezinak
dira albo kalteak.
Baten paseak eta
besten regateak.
Zelaitik urrun jo du
gaur erremateak,
ta izorratu ditu
nere tomateak (bis).

Jone Uria eta Alaia Martin

Gaia: “Zuek bi gazte zarete, 1923ko hartan. Jokalari batzuk kuadrillakoak zenituztela eta, lehenengo futbol partidu hori ikustera joan zarete. Hamar minutu pasa orduko, Jonek zera esan du: “Jo, nik ere gustura probatuko nuke jolas hori”. Eta Alaiak burura eman ditu eskuak: “Erotu al zara?”

Jone Uria:

Orain artean ikustea ez da izan guretzat problema. Nik ulertu dut joku-modua, arauak eta sistema. Eta uste dut sobran dudala gaitasuna ta almena. Esan zaidazu zer dan hainbeste ikaratu zaituena.

Alaia Martin:

Zure gogoak nire gogoak
ezingo du harrapatu.
Begira zenbat
leku daukaten,
hainbeste metro karratu.
Zure oinak ta desio hoiek
sabelean amarratu.
Guk ezin dugu oihurik egin
ta belaunik urratu.

Jone Urias:

Ezin dugula guk ezer egin
esan duzu, baina tira.
Berria dugu kontu hau eta,
gure abantaila hori da.
Gauza bat behintzat onartuko dut
egoeraren neurrira.
Eurak etziren gu orain gisan
eongo gure begira.

Alaia Martin:

Jarri arreta euren arropan
eta euren uniformean.
Jarri arreta paparra puztu
berri duen gizonen.
Jarri arreta zelai horien
sustraiaren sakonean.
Begira igual egongo dira
baina ez zentzu onean.

Jone Urias:

Akaso heldu liteke, beraz,
begi lizunen tropela.
Ta komentatu gure jolasa
noraino dugun motela.
Baina nik uste aprobetxatu,
saiatu behar gudukela.
Ez bagaituzte beraiekin nahi,
eurek esan dezatela.

Alaia Martin:

Eurek esan ez, eurek egingo
digute ozen iseka.
Garai bateko kontua baita
gure arteko hizketa.
Txalotzea ta barre egitea,
hori da gure ariketa.
Andre ta gizon
partida hortan
urrun dago berdinketa.

Jone Uria:

Hortan arrazoi emango dizut,
ezin gintezke konpara.
Ezin gintezke nahi bezain lasai
atera zelai hortara.
Ta nahiz ez garen igual helduko
berdinketa batetara,
behintzat posible izango al da
hemendik ehun urtetara?

Alaia Martin:

Ai, ehun urte pasa ta emango
 ote du baloiak bira!
 Galtzamotzetan irtengo ote
 gara zelaian erdira.
 Momentuz hobe dugu amestu
 geure aukeren neurrira,
 bestela gure ametsen golak
 saretan geratzen dira.

Bertso-pasarte batzuk Aiurri.eus
gunean ikusgai daude.

bertako

igogailuak | ascensores

-REKIN BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz ourrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

DROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

GIPUZKOA
 943 903 450

BIZKAIA
 946 523 935

ARABA
 945 712 822

NAFARROA
 948 870 917



www.bertako.eus



Kadete mailako taldea. AIURRI

Garaipenarekin abiatu du Kopa Ganbara kadete taldeak

SASKIBALOIA Larunbat honetan bigarren partida jokatu dute Allurralden, 09:00tan hasita

Erredakzioa ANDOAIN Urte berriarekin, lehiaketa berria kadete mailako taldearentzat. Ganbarak Astigarragako Mundarro garaitu zuen Kopan. Bolarak ona luzatzeko aukera du larunbat honetan, goizeko 09:00tan Erroibide Irun taldea hartuko baitu.

SASKIBALOIA

EMAITZAK

ATERPE (jub)-INTER	60-69
HERNANI-GANBARA (jub)	71-49
MUNDARRO-GANBARA (kad)	43-57
PLASTIGAURO (inf)-OIARSO	19-67

ASTEBURUKO PARTIDA

09:00 Ganbara-Eerroibide / Lar, 21

Leizaran Ernio Inmobiliaria

ESKUBALOIA 1. lurrealdeko senior mailako gizonen ligan 12. jardunaldia burutu da, bigarren itzuliri hasiera eman diona. Taldeak galdutako egin zuen Hondarribia Bidasoaren kantuan (27-23). Asteburuan Munttarperen aurka ariko da, sailkapenean nabarmen atzean dagoen taldea. Sailkapenean aurrealdean jarraitzeko moduan daude, beraz.



ZUMEATARRA

Juan Mugerza nazioarteko proba

ATLETISMOA Zumeatarra kirol elkarteak atletismoa sustatzeko lanean ari da, eta negu betean kros garaia izaten da. Aurreko asteburuan, Elgoibarren, Juan Mugerza nazioarteko krosa jokatu izan zen, eta, bertan, Andoingo klubeko bi ordezkari izan ziren lehiaketa: Unai Somovilla eta Javi Menta. Krosak xarma berezia du, eguraldi txarrekin gogortasun erantsia duena.

Denboraldi amaiera

ZIKLO-KROSSA Irati Aranguren eta Xabat Zuriarrain Espainiako txapelketan izan dira, Vic-en antolatuta zena. Irati Euskadiko selekzioaren elastikoarekin irten zen, eta Xabat Andoingo eskolatik. Irati 4. postuan sailkatu zen, Euskadiko selekzioetik lehena izanik. Xabat 43. postuan helmugaratu zen. Gipuzkoako txapelketan, Ormaiztegin, biak podiumera igo ziren.



ANDOINGO



Euskalduna taldea. EUSKALDUNA

Bosgarren postuari eusten dio Euskaldunako lehen taldeak

FUTBOLA Aurreko asteburuan Axularren zelaian galdu zuen (1-0), eta datorrenean Ostadarren zelaian jokatu dute

Erredakzioa

ANDOAIN Hamabost partida jokatu ostean, Andoingo taldeak aurrealdean jarraitzen du. Asteburu honetan goialdean jarraitzeko aukera berria dute urdinek. Lehen jardunaldian, Euskalduna eta Ostadar taldeen artekoa berdinketarekin amaitu zen (1-1). Asteburu honetan, Lasarte-Oriako zelaian ariko dira. Denboraldi hasieran etxetik kanpo sendo agertu ziren Hondarribian, Usurbilen eta Donostian garaipenak eskuratuta. Hernanin eta Lezon ere garaipena erdietsi zuten.

tarekin amaitu zen (1-1). Asteburu honetan, Lasarte-Oriako zelaian ariko dira. Denboraldi hasieran etxetik kanpo sendo agertu ziren Hondarribian, Usurbilen eta Donostian garaipenak eskuratuta. Hernanin eta Lezon ere garaipena erdietsi zuten.

Prestaketa lanetan

TXIRRINDULARITZA

Mikel Iturria Costa Dauradako lurretan ari da denboraldia prestatzen, Euskaltel Euskadi taldeko kideekin batera. Hamargarrena du tropelean, lehen mailan, eta Euskal Herriko Itzulia izango dute lehen helburua. Espainiako Vueltaren gonbidapenaren zain daude. Gainerakoan, nabarmentzeko lasterketarik ez zaie faltako.



ITURRIA



Urnietako
udala



Ohi bezala, maila ona ematen ari dira.

Sailkapenean aurrealdean jarraitu nahi dute

ESKUBALOIA Urnieta Quel Abogados jokatzten ari den taldean, onenak maila beretsuan ari dira

Erredakzioa URNIETA
Garaipen erraza lortuz amaitu dute lehen itzulia, Legazpin irabaziz (15-30). Bigarrenari ekingo diote, asteburu honetan. Urnieta taldeak Txingudiren zelaian jokatu du. Urnieta 8 garaipen eskuratu ditu, eta Txingudik 7. Partida orekatua izango da.

ESKUBALOIA

1. Lurraldeko senior emakumezkoa

SAILKAPENA

1	EIBAR	19 puntu
2	ORIO	17 puntu
3	IRAULI	16 puntu
4	URNIETA QUEL ABOGADOS	16 puntu
5	MUNTARPE	16 puntu
6	TXINGUDI	15 puntu



Ezkurra, Azpiroz, Ansa eta Barrenetxea aurkezpen-ekitaldian. ORIAMENDI

Hastear da Kutxabank Masters txapelketa

ERREMONTA Lau erremontista lehiatuko dira txapelketan, eta guztira bost partidu jokatu dituzte. Ezkurra, Azpiroz, Ansa eta Barrenetxea dira aurtengo protagonistak, Urriza ez baitago osaturik. Endika Barrenetxea da, hasiera batean, txapelketa irabazteko faboritua

Erredakzioa ANDOAIN
Erremontek ez du etenik, eta Gabonetako ospakizunak amaituta, martxan da Kutxabank Masters txapelketa. Urriza jokari handiaren parte-hartzerik gabe abiatuko da, baina, halere, lehiari dizdira emango diote Barrenetxeak, Ansak, Ezkurrak eta Azpirozek. Ligaxkan, hiru erremontista ariko dira. Barre-

netxea, Ansa eta larunbateko aurreligaxkako irabazlea. Ezkurrak edo Azpirozek, bietako batek egingo du aurrera.

Ligaxka
Hiru pilotarik hartuko dute parte ligaxkan eta denek denek aurka jokatu dute urtarrilaren 28an, otsailaren 4an eta otsailaren 11n.

Finala
Otsailaren 18an, finala jokatu da, Galarretan. Ligaxkan lehenengo bi postuetan geratzen diren erremontistek jokatu dute 2023ko Kutxabank Masters txapelketaren final handia.
Endika Barrenetxea hernaniorra da, hasiera batean, txapelketa irabazteko faboritua. Baina Ansa ez da atzean geratuko.



Euskalduna taldea, artxiboko irudian.

Liderra garaituta, bigarren postuan sendo

FUTBOLA Jubenil mailako Euskaldunak Anaitasuna garaitu zuen; lehen itzulia borobildu zuten horrela

Erredakzioa URNIETA
Liderra garaitu ostean, erronka berria dute asteburu honetan: sailkapenean atzetik datorren Aloña Mendiren zelaian jokatzeko, eta, ahal dela, puntu berriak pilotzen joatea. Denboraldiaren lehen zatia bikain doa talde urdiñarentzat.

FUTBOLA

Ohorezko Jubenil Maila

SAILKAPENA

1	ANAITASUNA	33 puntu
2	EUSKALDUNA	27 puntu
3	ALOÑA MENDI	25 puntu
4	ZUMAIKO	24 puntu
5	ORIOKO	24 puntu
6	URKI	24 puntu

URTARRILAK 21 LARUNBATA
15:30ETIK AURRERA

1. PARTIDUA (30 TANTO)
URRIZA - LARRANAGA VS
SEGUROLA - BARRENETXEA IV

2. PARTIDUA (30 TANTO)
EZKURRA II VS AZPIROZ

3. PARTIDUA (40 TANTO)
GONKOTXEA V - APEZTEKOA VS
LOITEGI - MARTIRENA

GALARRETA JAI ALAI HERNANI



Plazaola, Garmendia eta Alorreneako Jokin Mariezkurrena denboraldi berriaren irekiera ekitaldian. AIURRI

249 sagargile, bi milioi kilo

Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko sagardoa ekoizteko, 249 sagargileren bi milioi kilo inguru sagar erabili da. Irailaren hasieran kontrol bat egin zen Lurraldearen artean Gipuzkoako sagasti batzuetako sagarren egoera ezagutzeko. Horretarako, Gipuzkoako zenbait sagasti jarraitu eta 14 barietate kontrolatu ziren: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzulua, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria.

eta ekimen ezagunen aldeko apustua egin du sorreratik. Eki-mena abiatu zen urtean, 1994an, Andoni Egaña izan zen ohorezko gonbidatua. Eta, geroztik, askoren artean, Miguel Indurain, Ainhoa Arteta, Jose Luis Korta, Izaro kantaria, Karlos Argiñano edota Amak musika taldea.

Sagardoetxean aurtengo uz-taren xehetasunak eskaini ondoren, Alorrenea sagardotegian, "Gure sagardo berria" oihukatu zuten Plazaolak eta Garmendiak. Antzezleen ogibidea txotx girora ekarrita, oholtza sagardotegia izango da eta protagonista nagusia, berriz, sagardoa. Herritarrak aurtengo obraren ikusle eta dastatzaille izateko gogoz daude. Zuzendaria -txotxeroa- "Txotx!" noiz esateko irrikan dira. Teloia zabalik da. Goza!

Xabier Lasa ANDOAIN


Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, Sagardo Berriaren Eguna ospatu zuten Astigarragan. Urtarrilaren 11n izan zen, eta, dagoeneko, XXX. edizioa da. 2023ko txotx boladari hasiera eman eta sagardo berria dastatzen hasteko ekitaldiak hedabide askoren arreta bereganatu ohi du. Ohikoa da gonbidatu bereziekin txotx garaia hasiera ematea eta aurtengo gonbidatuak Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola aktoreak izan ziren. Antolaketak euskal pertsonen

"Gure sagardo berria!"

Aurreko astean txotx denboraldiaren bi aurkezpen esanguratsu egin ziren. Lehena, Donostian, sektoreak antolatuta. Bigarrena, Astigarragan, Sagardoaren Lurraldea egitasmoaren eskutik. Sagardotegien garaia iritsi da, txotx egitekoa

Txotx 2023 **GARAIAN GARAIKOA: "TXOTX!"**

Elkarrizketak, albisteak... Atal berezia webgunean
www.aiurri.eus



Okm:
batzen gaituen
distantzia



Laburu eta Martin kantuan. AIURRI

Bertsoak Plazaolari eta Garmendiari

Kanpoaldean

Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola sagarrondoa landatzen ari ziren bitartean.

Agin Laburu:

Jon ta Aitziber aritu dira bastante itxura trebez. Baina harpa pixkat jo nahiko nuke bilduta gaudenez jendez. Jon Plazaolak zuhaitz luze bat alda dezala mesedez, ta Aitziberrek bonsai txiki bat nahikua leukake berez.

Alaia Martin:

Biak gustora ikusten ditut puzle hori nola osa. Ezin asmatuz nahiz izan duten atxurrarekin kaosa. Talai txiki hau begiratzeko dugu leku aproposa, ikus dezagun nola hazten den hurrengo urteko poza.

Sagardotegian

Alaia Martin:

Nola Euskal Herria ez dagoen hila, segi topa egiteko motiboen bila. Mahi buelta, kupela ta

sagardo botilla, elkartzeko aitzaki bihurtu dadila (bis)

Agin Laburu:

Hasi baino lenago bodega gorpuzten sagardogileak du mlla aurrikuspen. Eta sagarrik nola ez baitzan ikusten, Golden ta Pink lady sartuko zituzten (bis).

Alaia Martin:

Denboraldiak badu beste zenbait kezka, tabernak beteta ta kupelak gainezka. Errespetua ez dugu ahaztuko ezta? Festa izan dadila denontzako festa (bis).

Agin Laburu:

Batzuentzat poz dena bestentzat kezka da. Gu ez geraldako gu sagardorik ez bada. Jan-edanik gabe euskaldun ez gara. Beraz, hartu basoa ta goazen festara (bis).



AIURRI

Sagarrondo berria landatu zuten

Sagardoaren etxean Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola aktoreak izan dira aurtengo protagonistak. Euskaldun jendearentzat aurkezpenik behar ez duten kultur gileak dira. "Gure sagardo berria!" oihukatu zuten, txotx garaiari hasiera emanez. Sagardoa dastatzeaz gain, sagarrondoa landatu zuten Sagardoaren etxearen kanpoaldean.



AIURRI

Sagardotegiak, prest

Zabala izan zen inguruan lehena, Aburuza izan zen hurrengoa eta pixkanaka Mizpiradi, Gaztañaga, Altuna eta eskualdeko gainerako sagardotegiak martxan jarri dira. Garaian garaiak izanik, hilabete hauetan lagunarte eta familia askoren plana izango da sagardotegira joatea. Uzta ez da handia izan, baina diotenez oparoa da.



Sagastiak Villabonako Otarrea etxaldean, artxiboko irudian. AIURRI

Gipuzkoako Foru Aldundiaren apustua

Tresneria erosteko eta sagasti berriak lantzeko diru-laguntza lerroa sendotu da

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako Foru Aldundiko landa ingurune departamentuak bertako sagarraren alde egindako lana azpimarratu zuten, Astigarragako ekitaldian: 2016an hasita, 115 hektarea landatu dira eta 1.870.836,99 euroko dirulaguntzak onartu dira. Horietatik gehiena tresneriara bideratuta, eta gainerakoa sagasti landaketara. Produktuaren kalitatearen hobekuntzan, sektoreak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Fraisoro Nekazaritza Kalitateko eta Berrikuntzako Laborategia martxan du. dauka. Laborategiak sagardogile guztiei ematen die zerbitzua.



sagardoa
route

ERRESERBATU ZURE
SAGARDOTEGIA

www.sagardoa.eus

Erreserbak - Denda

Euskal Sagardoaren
Ibilbidea

Natura eta ondarea,
gure jatorrira ibilbidea

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 20

URNIETA Antzerkia

Kulunka konpainiaren "Forever" antzezlanaren aurre-estreinaldia. Maskara bidezko antzezleen atzean ariko dira Jose Daults, Garbiñe Insausti eta Edu Carcamo aktoreak. **19:00, Sarobe. 5 euro.**

LARUNBATA 21

ANDOAIN Aurkezpena

C2ak kaltetutako herritarren plataformak "Dekalogo" aurkeztuko du. **12:00, Bastero. Ekitaldi aretoa.**

ASTEAZKENA 25

URNIETA Aurkezpena

Urnietako energia komunitatearen aurkezpena antolatuta du Udalak. **18:00, Lekaio.**

OSTEGUNA 26

URNIETA Bertso bazkaria

Arkupe Nafarroako Jubilatuen Elkarteak antolatuta, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso ariko dira. **14:00, Oianume sagardotegia.**

URNIETA Matrikulazioa

Jolas libre, jolas kooperatibo eta tradizionalak, abestiak, jostailuak, sormen tailerrak eta ipuinak Udal Ludotekan. Ordutegia: astelehenetik ostegunera 17:00etatik 19:00etara. **Azken eguna: Urtarrilak 26.**



Ruper Ordorika. RUPERORDORIKA

ANDOAIN Ruper Ordorika, disko berriena aurkeztera dator

"Amour eta Toujours" lan berriena aurkeztera. Son eta Kubako doinuak nagusi dira. Taldekideekin batera ariko da Andoain. **Urtarrilak 20, ostirala. 20:00, Bastero. 12 euro.**

OSTIRALA 27

ANDOAIN Erakusketa

Imanol Goikoetxea artista. **Urtarrilak 27-Otsailak 25. Bastero.**

LARUNBATA 28

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots. **16:30, 19:00. Bastero. 6 euro.**

IGANDEA 29

URNIETA Haur ikuskizuna

"Kontari": Mundu osoko abestiak. **18:00. Sarobe. 3 euro.**

ASTELEHENA 30

URNIETA Aurkezpena

"Pantailak Euskaraz" mugimendua iritsi da Urnietara, herriko AEKren Zilegi Eskola proiektuaren eskutik. Ioritz Gonzalez hizlari ariko da. **18:00, Sarobe.**

OSTIRALA 3

ANDOAIN Antzerkia

"Familia Sarekada". Nerea Gorriti, Mikel Laskurain, Ainhoa Aierbe eta Xanti Korkostegi: "Komedia katartikoa, Interneten pribatutasuna eraisten ari diren garaiotan". **20:00, Bastero. 12 euro.**

ZINEMA


**ANDOAIN****BASTERO****Todos lo hacen**

Lar., 21. 19:30, 22:00.
Ig., 22. 19:30.
Astl, 23. 19:30, 22:00.

El gato con botas

Lar., 21. 17:00.
3D:
Ig, 22. 17:00.

Queso de cabra y te con sal
Dokumentala.
Urt., 24. 20:00.



SINOPSISIA

**Todos lo hacen**

Zuzendaria: Martin Cuervo. **Aktoreak:** Salva Reina, Kira Miro, Carlos Santos, Mariam Hernandez, Julian Lopez, Andrea Duro, Macarena Gomez, Toni Acosta, Victor Palmero, Pablo Carbonell. **Herrialdea:** Espainia (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Thriller, Komedia. **Iraupena:** 99 min.

Umore beltza

Lau bikotek asteburu bat pasatzeko gonbidapena jaso dute ezkondu ziren hotelean. Ez dakite anfitrioiak xantia egin nahi diela. Eta are gutxiago hurrengo egunean hilda

agertuko dela. Umore beltza film koralean, Agatha Christieren estiloko garapenarekin. Aktore gehienak aski ezagunak, batez ere, umore kutsuko filmografian.



OGIA EZ DADILA FALTA
... ezta euskara ere!

Heldu erronka bati hilerok!



Herritarren babesa jaso zuten kiroldegiko grebalariek

Grebak bere horretan dirau, eta ostegun honetan bilera egitekoak dira aferan murgilduta dauden aldeak



Manifestazioa deitu zuten, aurreko ostiralean. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Greba mugagabeen jarraitzen dute bertako langileek, hilaren 9az geroztik. Asteburuan ireki izanak, haserrea piztu du lanuztea egin duten kideen artean, baita oposizioko alderdien ardura eragin ere. EH Bilduk udalletxean galdera erregistratu du,

afera horren gainean. Aurreko ostiralean greban dauden langileek manifestazioa deitu zuten, eta babesten dituzten herritarrek badituztela erakutsi duten. "Langileen partetik, gatazkari amaiera emango dion akordioa lortzeko helburua eta nahia argia da", adierazi zuten egun hartan.

Kartel lehiaketa

Martxoaren 8a iragartzeko lehiaketa deitu du Andoaingo Berdintasun sailak. 450 euroko saria dago jokoan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Kartelaren gaia librea da, baina "aurten, jostek-iruteko jarduerarekin eta haren eremu semantiko osoarekin lotutako elementuren bat sartzeko eskatzen zaie artistei". Guztietan, ongi nabarmendurik, ondoko testua azalduko da: "Martxoak 8 - Emakumeen Nazioarteko Eguna. Andoain 2023". Sari bakarra izango da, 450 eurokoa, Salkinera atxikitutako dendetan kontsumitzeko.

Laan Basteron aurkeztu behar dira, datorren otsailaren 8an. Ordutegia: 10:30-13:30 / 17:00-19:00.

Lanak Basteron aurkeztu behar dira, datorren otsailaren 8an. Ordutegia: 10:30-13:30 / 17:00-19:00.

Santa Eskea entseguak

Otsailaren 4an kantuan atera nahi? Horra entseatzeko gonbitea: "Urtarrilaren 30ean, astelehenarekin, eta otsailaren 1ean, asteazkenarekin, entseguak egingo ditugu Ambrosia Olabide egoitzako sarrera nagusian, ohi dugun bezala, iluntzeko 20:00etan hasita". Otsailaren 4an, berriz, arratsaldeko 18:00etan irtengo dira kantuan.

Pantailak euskaraz

Pantailak Euskaraz mugimendua iritsi da Urnietara, herriko AEKren Zilegi Eskola egitasmoaren eskutik. Hala, hitzaldia emango du loritz Gonzalezek Saroben, datorren hilaren 30ean, arratsaldeko 18:30ean hasita. Bertan, euskarazko ikus-entzunezko edukien baitan sortu den egoera ezagutaraziko da.



AEK euskaltegia. AIURRI

Euskara ikasten ari direnentzat deialdi berria

Abenduan onartu zen prozedura berria, euskara ikasten ari direnei eragiten diena

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak abenduan onartu zuen prozedura berriaren bitartez, diruz laguntzen jarraituko du euskaraz ikasteko ahallegina. 2022-23 ikasturtearen deialdian honakoak dira aldaketa nabarmenenak:

Eskaeren tramitazioa hiru multzotan egingo da:

1. multzoa: urritik aurrera hasi eta martxoaren 1etik ekainaren 30era bukatzen diren ikastaroak.
2. multzoa: urritik aurrera hasi eta martxoaren 1a baino lehen bukatzen diren ikastaroak.
3. multzoa: udako ikastaroak.

Ikasleek ikastaroa bukatu baino lehen aurkeztu beharko dute dirulaguntza eskaera, eta hortik aurrera Udalak eskatuko dizkie ikastaroa egiten ari den euskaltegiari matrikularen eta asistentziaren datuak.

Dirulaguntzen jakinarazpenak ez dira banan bana egingo, Andoaingo Euskara Zerbitzuko webgunean argitaratuko dira.

Dirulaguntza emateko garaian ez da kontuan hartuko gainditutako maila. baina bai asistentzia, %85ekoa edo altuagoa izan beharko duena.

Informazio osoa andoaindarraeuskaraz.eus webgunean.

ZORION-AGURRAK



URNIETA
Zorionak Aritz!
Aritz, zorionak!
Urtarrilaren 21ean
11 urte beteko
dituzu. Egun oparoa
igaro!



ANDOAIN
Amaia Errazkin Ezeiza
Urtarrilaren 27an 26
urte beteko dituzu.
Muxu handiak aitona
Esteban eta amona
Mirenen partetik.

Denda-Berri elkarte

Otsailaren 4an Urnietako pentsiodunek eta zaharrek batzarra egingo dute, egoitzaren lokalean. 17:00etan 1. deialdian, eta 17:30ean bigarrenean. 2022ko diru-sarrera eta gastuen balantzea, aurkezpena eta onarpena aztergai izango dira. Baita 2023rako jarduera programa eta aurrekontua ere. Bazkideek galderak egiteko aukera izango dute.

Ogia eta egutegia eskuan, euskararen aldeko ekimenean

Andoaingo hiru ikastetxeetako haurrak ogia eta egutegi berezi bat eskuan itzuliko dira etxera, egun hauetan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

2023ko urtarrila eta ekaina bitarteko egutegi bat da, erronkaz beterikoa. "Ogia ez dadila falta... ezta euskara ere!" lemapean, euskara egunerokoan txertatzeko gonbitea da. Egutegia etxeko horman, hozkailuan edo hobekien irizten den lekuan jar daiteke. Bertan familiekin QR kode bat aurkituko dute, mugikorrarekin eskaneatu ahal izateko; 2023ko ekainera arte euren erronkak zein izan daitezkeen aurkituko dute bertan. Proposamenak eta ideiak dira, lau hizkuntzatan idatzita: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta arabieraz. Erronka hauek euskarari eta honen erabilerari buruz hitz egiteko aukera eskainiko dute, hilabetez hilabete, ikasgelan zein etxean.

Andoaingo Udalak sustatu du ekimena, Aiurriarekin lankidetzan, Ondarreta, La Salle-Be-

rozpe eta Aita Larramendi ikastolarekin batera. Iaz abiatutako ekimena osatu eta aberastu du Euskara lanskailak.

Euskararen transmisioan protagonista izan daitezen

Udalak ohar bidez zabalduetako mezua erabera, "hizkuntza asko bizi dira gure udalerrian. Gure asmoa Andoaingo familiak gonbidatzea da, haiek ere euskararen transmisioan protagonista izan daitezen. Ogiaren sinbolismoa erabili dugu, eguneroko elikagaia delako, euskararari lotzeko. Egunerokoan ere erabiltzen den hizkuntza izan daitekeelako". Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eragingo du egun hauetan abiatutako kanpainak. Astea amaitzerako herriko haur guztien artean banatuta izango da egutegia. Eta ogia, janda.

KOMUNITATEA

EH BILDU URNIETA

Urnietako EH Bilduren deialdia

EH Bilduk maiatzaren 28ko hauteskunderen erronkari erantzuteko lantalde bat osatu du eta dagoeneko lehen erabakiak gauzatu ditu. Hauteskunde Batzordeko ordezkariak bozkatu dira eta Mikel Izagirre Rekondo eta Ainhoa Jauregi Cabezon izan dira bilkideek hautatutako ordezkariak. Hurrengo pausoa alkategaia aukeratzea da eta urtarrilak 29ra bitarteko tarte izango dute hautagaiek beren burua aurkezteko. EH Bilduk prozesu hau modu gardenean informatuz eta bere kidegoarekin batera aurrera eramateko konpromisoa izango du gida-lerro.

Babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa

Urnietako Ermotegiko etxebizitzaren zozketa datorren urtarrilaren 23an egingo da, notario aurrean

Erredakzioa URNIETA

Etxebiden izena emanda zeuden eskatzaileek Urnietako Ermotegi eremuan dauden etxebizitzaren horiek esleitzeko prozeduran parte hartzeko aukera izan zuten, bere garaian. Ondoren, onarturiko eta bazterturiko eskaeren zerrenda argitaratu zen, Etxebidaren webgunean kontsultatu daitekeena. Zozketa urtarrilaren 23an gauzatuko du Britac Projectos S.L. sustatzaileak, notario aurrean, arratsaldeko 16:00etan hasita. Onarturiko zerrendan agertzen diren pertsonen artean zozkatuko dira, beraz, 25 etxebizitza horiek.

Urnietako Energia komunitatea, plazara

Komunitatea 2022ko martxoan eratu zen, Edinor enpresaren eskutik. Jendaurreko aurkezpena egingo dute herrian, datorren urtarrilaren 25ean. Arratsaldeko 18:00etan hasita, azalpenak eskainiko dituzte Lekaio kultur etxeko areto nagusian

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Tokiko Energia Komunitatea jendaurrean aurkeztuko dute, hurrengo astean. Udalak horrela aurkeztu du ekimena: "Proiektu berritzaile honek udalerrira jasangarriago bat sortzen lagunduko du, KM0 energia berriztagarria kontsumituz, udal eraikinetan instalatuko diren plaka fotovoltaikoei esker. Onuradunak, bestalde, proiektuan parte hartu eta komunitateko kide diren urnietarrak izango dira. Pertsona horiek beren fakturan aurreztuko dute, eta, batez ere, energia garbiagoa kontsumituko dute ingurumenaren zainketan ekarpena eginez".



Eguzki plakak Zumarragako kirol instalakuntza batean. OTAMOTZ

Odola emateko aukera berria Urnietan, hilaren 30ean

Gaztelekuan eman beharko da odola. Aurretik txanda eskatu beharra dago

Erredakzioa URNIETA

Odola-emateko premiazko ekintza da gizakiontzat, behar-beharrezkoa baita zailtasunak dituzten bizitza asko aurrera atera ahal izateko. Urnietako taldeak urtarrilaren 30ean odola emateko deia luzatu du: "Urnietarrak odola ematera animatu nahi dituzu, beharra duten pertsonen laguntzeko eta, horrela, ospitale-zerbitzuek egunero egiten dituzten transfusio-eskaerei erantzun ahal izateko". Odola eman nahi duten pertsonen ondorengo telefono zenbakira deitu beharko dute egunean bertan txanda hartzeko: 943 00 78 85.

ZAIN DUGU AGATE DEUNA!

ENTSEGUAK:

- Urtarrilak 30, astelehena
- Otsailak 1, asteazkena

20:00

Anbrosia Olabide
egoitzako sarrera nagusia

IRTEERA:

- Otsailak 4,
larunbata

18:00

Doktor Huitzi kalea, 15.
Bazkunaren egoitza.



*Urteroko usadioari helduko diogu
eta berriro Andoaingo kale eta
plazetan barrena ibiliko gara.*

